



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-12-06**

VIURTEA 1.578.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Maider Mendizabal eta Nagore Arozena garaikurrekin. REBEKA CALVO

PILOTARIAK ITZULI DIRA KUBATIK, ERRONKA GAINDITU OSTEAN

TOLOSALDEA Mendizabal anoetarrak eta Arozena lizartzarrak Kuban jokatu berri den Munduko Gomazko Paleta Txapelketa irabazi dute 7

Galbete, Iturbe eta Navarro, komiki onenen egileak

IBARRA Aukeratu dituzte Galtzakomik 08ko irabazleak; sari banaketa hilaren 12an izango da 4

**Amezketan eta
Baliarrainen
«gustura»
daude kultur
ekitaldiekin**

TOLOSALDEA Mahai inguruak eta Harri Festak arrakasta izan dute 6

Etzi izango da X. Nazioarte mailako Ziklokrosa

ASTEASU Sven Nys, iazko irabazlea, da faborito nagusia; maila handiko txirrindulariak ariko dira 3



Herriko sukaldariak eta hainbat adituk dastatu zituzten txuletak. ESTI EZEIZA

Zerkausia erretegi erraldoi bilakatu da

TOLOSA Atzo hasi zen Txuletaren Festa hainbat adituk eginiko txuleta dastaketarekin 2

SHUYANA
EDERGINTZA

Shuyana kosmetika **denda berria**
abenduaren 9an **INAUGURATZEN** dugu
eta gure bezero eta lagunei gonbitea luzatzen diegu

Abenduak 9 ASTEARTEA • 19:00tan

Korreo kalea, 1 • Tel.: 943 67 14 68



Gaztea eta Leongo Maria Parrato Kultur Etxean izan zen atzo. E. EZEIZA

Asteburu luze honetan, txotxongiloak

Kultura » Lau saio izango dira gaur; lehendabizikoa 12:30ean izango da, eta gainontzekoak berriz, arratsaldean zehar.

ERREDAKZIOA

Tolosako Txotxongilo jaialdiak ez du etenik, eta gaur ere hiriko lau aretotan izango dira emanaldiak. Eguneko lehena Kultur Etxean izango da, eta Venezuelako Bengala teatroak *Filipo* lana aurkeztuko du.

Bigarren emanaldia, Kasinoan izango da. Argentinako Asomados y escondidos taldea izango da es-

zenatoki gainean. Hauen azken lana da *Huevo de ida y vuelta* (Joan eta etorriko arrautzatxo), eta etxeko txikienei zuzenduta dago. Hogeita hamar minutu beranduago, Udal musika eskolan beste emanaldi bat hasiko da. Oraingoan, Herrialde Katalanetik etorritako Eugenio Navarro izango da lana aurkezten duena. *Malic en China* (Malic Txinan) izena du antzezlanak.

Eguneko azken saioa 19:00etan hasiko da, eta hiriko antzoki handienean izango da, hau da, Leidorren. Bertan, Madrilgo Teatro de la Luna taldeak, atzo bertan estreinatutako *El Jardinero* (Lorezaina) lana taularatu du.

«Gizarteari begiratzen diogu, eta hemen ikusitakoa eszenaratu»

IKER GARCIA » Laenanaranja konpainiako zuzendaria

Txotxongiloak » Inmundo, autismoa duen haur baten istorioa kontatuko dute bihar eguerdian, Bilboko txotxongilo taldekoek.

E.EZEIZA

Laenanaranja konpainia bilbotarrak bere azken lana aurkeztuko du bihar Kultur Etxean. Familia osoari zuzendutako obra da *Inmundo, doblador de barrotes* (Inmundo, barra tolestatzaila) antzezlan. Hala, emanaldi bakarra eskainiko dute, eta hau, 12:30ean izango da. Taldeko zuzendaria da Iker Garcia.

Nondik sortu zen antzezlan hau?

Obra honek eduki sozial handia du. Sandra Alvarez, taldeko kideak, urte askotan lan egin du ezintasunak zituztenekin. Hala, berak, epe horretan bizitutako gertaera asko kontatu zituen, eta hauek antzerkiaren mundura hurbildu ditugu. Hortik hasita, haurrei zuzendutako istorio bat jaio zen.

Zer da bertan kontatzen dena?

Magie zirkoaz hitz egiten dugueta bertako jabeak Inmundo dauka, hau, naturako fenomeno arraro bat dela uste baitu. Baina errealitatean, hau, autismoa eta elefantismoa duen haur bat da. Honenbestez, munduan zehar, herrialde herrialde bidaiatzen dute zirkoarekin, Magic jaunak dirua irabazten duen bitartean. Bizimodu hau, Inmundoentzat oso gogorra da, eta herrialde batetan, askatu egiten du neskatobatek. Hau mutikoa be-



HITZA

zala sentitzen da, hanketako bat egurrezkoa baitu. Hortik aurrera, abentura batean sartzen da protagonista, eta kanpamendu erabilgarri iristen da. Hau erresistentzia herrixka bat da, non gizarteak normaltzat jotzen ez dituen horiek bizi diren. Azkenik, bertan bizi direnek zirko bat sortzea erabaki bizi dute, erakusteko gainontzekoei, beraien berezitasunak zeintzuk diren, eta zer egiteko gauza diren.

Gizarteko arazo bat agertzea da beraz, zuen helburua.

Ez dugu irakaspenetan erori nahi, ez eta pertsona hauen egia absolutua agertu ere. Baina artista garen heinean, gizartea begiratzen dugu eta eszenara eramaten dugu. Horregatik, gizarte honetan nolabait, klandestinoa den hori erakusten dugu. Beraz, pertsona hauen existentziaren berri eman nahi dugu, modu maitagarri eta komiko batean.

Horrelako gai konplexu bat, nola agertzen zaie haurrei?

Eduki sozial hau, azken batean, atzean dago. Haurrari, istorio hau zirko baten bitartez iristen zaio. Bertan, Magic gaiztoa dago, zeinek, haur autista bat preso daukan. Beraz, Inmundoren abenturen bitartez agertuko dizkiogu atzeko zertzelada horiek. Baina dramatismoan erori gabe, eta modu komiko batean. Antzerkia bizitzako errealitateko gauza batzuk erakusteko modua dela uste dugu, eta hala egiten dugu.

Zuen bigarren lana da hau, txotxongiloen munduan.

Bai, aurrekoan telebistaren gaia jorratzen genuen. Hau da, telebistaren aurrean, aspertuta, jolasteko gaitasunik gabe egoten diren haur horietaz hitz egiten genuen. Guk ez dugu dibertitzeko bakarrrik bali duen antzerki hori egiten, elementu sozialak dituzte orain arteko gure lanek.



Txuletak dastatzen lehendabizikoak

ASIA » Gastronomía adituek egindako txuleta dastaketarekin hasi zen atzo Txuletaren Fes- ta. Nicolas erretegiak bildu ziren eguerdian, Foru Aldundiko ordezkariak, gastronomía adituak, Tolosako lau erretegi ezaguneneko sukaldariak, eta Carnicas Goyako arduradunak. Aurtengoan, Italia, Galizia, Alemania eta Danimarkako behi okelez gozatu ahal izango da Zerkausian ospatuko den jaialdi gastronomikoan. E. EZEIZA



Eguberriak ia gainean ditugula iragarritz

GIZARTEA » Gabonak hasteko hiru aste inguru falta direnean, Eguberri giroa zabaltzen hasi da jada Tolosan. Atzo iluntzean, trikiti doinuek lagunduta piztu zituzten Gabonetako argiak. Urteroko ohiturari jarraituz, Trianguloan ipini zituzten, Tolosako kolore diren argi txuri-urdi-nez egindako aingeru iragarlea eta apaingarriak. Haurrek txundituta begiratzen zituzten, eta dantzan ere hasi ziren batzuk. E. EZEIZA

Parte-hartze ikusgarria aurtengo ziklokrosean, Sven Nys buru dela

Asteasu » lazko irabazlea da Nys eta munduko ziklokroseko txirrindulari onena da askoren ustez; aurkari onak izango ditu ondoan.

ERREDAKZIOA

Aiztondo Txirrindulari Elkarteak mundu mailako ziklokros proba antolatu du aurten ere. Nazioarte mailan dauden txirrindulari onenak parte hartuko dute etzi Asteasuko Nazioarteko X. Ziklokrosean. Faborito nagusia berriro Sven Nys flandesterra izango da, iazko irabazlea eta askorentzako egun dagoen txirrindulari onena ziklokrosean.

Nysekin batera maila handiko txirrindulariak izango dira Astea-

sun: Bart Wellens, Erwin Vervecken, Sven Vanthourenhout, Klaas Vantornout, Bart Aernouts, Francis Mourey, Zdenek Stybar eta Jonathan Page, guztiak Munduko Kopako parte-hartzaileak. Euskal txirrindulariei begiratuz gero, Javier Ruiz de Larrinaga, Unai Yus, David Seco, Egoitz Murgioio eta Aketza Peñaizango dira. Aipatu behar da aurten ere Tino Zaballa espainiarrak parte hartuko duela, iaz bosgarren egin ondoren.

Iazko ibilbidea

Elizmendi auzoan egingo dute ibilbidea, iazkoaren berdina, eta guztira 2.610 metro izango ditu. Horietatik 2.000 metro larreetan izango da eta, beraz, ikuskizuna ziurtatua dago. Euririk ez duela egingo dio eguraldiaren iragarpe-

nak, baina dagoeneko erori den guztiarengatik eta txirrindulariak zirku-tuan ibili ahala asko lokaztuko dela dirudi.

Ibilbide guztia batera ikusteko aukera izango da eta horrek erakargarritasuna ematen dio probari. Guztira hiru proba izango dira. Lehenengoa kadeteena izango da eta hauek 13:45ean hasiko dira. Ondoren jubenilen txanda izango da eta 14:30ean ekingo diote probari. Azkenik, proba nagusia 15:45ean hasiko da. Hain justu, elite eta 23 urte azpiko proba hori ETBk zuzenean emango du.

Ziklokrosa gustuko duenak ezingo du huts egin Asteasuko urteroko hitzordura. Aitzondo elkartekoak lan handia egiten ari dira urtero parte-hartzaileen maila hobetuz.



Sven Nys, iazko proban, helmuga igarotzen. E. EZEIZA

Xiba jaialdia egin dute Olaederra kiroldegian

Villabona » Ernio-bea Institutuako eta Laskorain Ikastolako ikasleek parte hartu zuten eta bigarren izan ziren bere mailan.

ERREDAKZIOA

Villabonako Olaederra kiroldegia gazte zete zen atzo. Kutsak antolatuta eta Xibak sustatuta DBH3 eta DBH4 mailetakoko ikasleek finala jokatu zuten. Tartean izan ziren Villabonako Ernio-bea Institutua eta Tolosako Laskorain Ikastola.

Xibatik azaltzen dutenez, topaketa hauen helburua «gure kultura osatzen duten joko eta jolasen

transmisioa eta elkarrekin ondo pasatzea da». Hainbat joko egin zituzten, batzuk herri kirolekin zerikusia dutenak, sokatira, lokotz bil-tzea eta ingudea altxatzea, esaterako. Beste batzuetan indarrak ez zuten hainbesteko garrantziarik, azeri-buztanaren jokoa horren adibide.

Gipuzkoako hainbat herrietako ikastetxeek parte hartu zuten maila bakoitzean. Laskorainek eta Ernio-beak bigarren postua lortu zuten, DBH3ko mailan eta DBH4 mailan, hurrenez hurren. Ekitaldiari jaialdi kutsua eman nahi zitzaionez, musika izan zen zuzenean eta Esnaola anaiek erakustaldia eman zuten trontzan.



Ernio-bea Institutuko ikasleak arraun proban. I. GARCIA

Jolasekin eta gaztain jatearekin eman diete bukaera ekitaldiei

Zizurkil » Azken egunetan Euskararen Astea egin dute Pedro Mari Otaño eskolan, hainbat ekitaldirekin.

ERREDAKZIOA

Pedro Mari Otaño eskolako Euskararen Batzordeak antolatuta, aurreko egunetan Euskararen Astea egin dute. Ekitaldiz josi dute eta Batzordeko guraso batek azaldu duenez, «oso ondo» joan dira ekitaldiak. Aste hau «oso polita» dela dio eta ekintzetan gurasoek parte hartzea ere «oso egokia» deritza. Hain justu, atzo izan zen azken ekitaldia eta bertan guraso eta ikasle-aren arteko jolasak egin zituzten eta ondoren gaztain jatearekin amaitu zuten astea.

Astean zehar, pertsona ezagunen bisita izan dute eskolan, Ainhoa Aierbe eta Naroa Agirre aktoreak eta Porrotx pailazoa, «ikusteko euskaraz egiten duten pertsona ezagunak ere badaudela». Horrez gain gurasoak ipuin kontakten aritu dira maila ezberdinetan.

Herenegun izan zen ekitaldi nagusietako bat: euskararen hitzarmena. Eskolako kideez gain herriko zenbait eragile izan ziren bertan eta denen artean euskararen aldeko konpromisoa hartu zuten. Atzo arratsaldean, esan bezala, joko eta alagrentzako tartea izan zen eskolako frontoian.



Gurasoek eta ikasleek parte hartu zuten atzoko jolasetan. I. GARCIA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Zakurkumeak.** Gorbea arrazako zakurkumeak salgai. Oso arraza onekoak. Gurasoak lanean. Deitu 609 22 38 57 zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Hiru logelako etxebizitza alokatzen dut Jakan. Aste-ka edo hilabeteka. Deitu 635 75 02 93 zenbakira.

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa).
Etxeak, Allirin eta Larramendin.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean, Larramendin eta Baxiler Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitzak.
Kale Nagusian, Araba etorbidean Baxiler Zaldibian eta Marlin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran), Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztia eta Iruran 20.000.000 pztia.
Salgai (Irura), Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje itxiak eta irekiak. Amartzen (Tolosa) eta Ibaran.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

G Gutunak

Guk ez dugu ezer ospatzeko!

Gaur, abenduak 6, Euskal Herriaren zapalkuntzaren oinarri den Espainiako konstituzioaren egun honetan, euskaldunok ezin gara ixilik geratu. Euskal Herriak eta euskaldunok salbuespen egoeran bizirik gara.

Erasoaldi bortitz bat jasaten ari gara: ilegalizazioak, atxiloketak, torturak... Debekatua zaigu gure herria defendatzea, zigortuak gara gure herria defendatzeagatik.

Baina alferrikakoa izan da. Es-

painiar konstituzioa agortua dago, sufrimendua besterik ez dugu ekarri. Horregatik, gaur euskaldunok ez dugu zer ospatu. Gaur euskaldunok gure eskubideen defentsan ateratzeko eguna dugu, Euskal Herriak bizi duen gatazka konponbidean jartzeko garaia heldu zaigu eta bide horretan Espainiako konstituzioa, harresi bat besterik ez da.

Besterik gabe, guztie deialdia egin nahi dizuegu egunean zehar burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Ibarrako ezker abertzalea.

Silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa

Elduain » Abuztuaren 17rako Artatxu baserriaren ondoan utzi beharko dira plastikoak, hurrengo egunean eramateko.

ERREDAKZIOA

Baserrietan erabiltzen diren silo-bolak egiteko plastikoak ingurugiroarekiko sortzen dituen kalteak direla eta, Mendi Nekazaritza Landa Garapeneko Elkartearekin elkarlanean, Elduaien plastiko hauen bilketa zerbitzua martxan jarri zen. Elduaingo Udalak xehetasun guztiekin bandoa zabaldu du.

Abenduaren 17rako

Udalak, herriko plastiko guztien bilketa puntua, Artatxu baserriaren ondoan finkatuta dauka, baila horiekin.

Hilaren 17an, asteazkenean, bertara eraman beharko dira bolak, Udalak lotuta eramatea eskatu du, haizeak bola hauek altza ez ditza.

Bilketa berriz, hurrengo egunean, hau da, abenduaren 18an egingo da.

Udalaren jakinarazi duenez, «zerbitzua herritarrentzat debaldin bada ere, aipatu den Artatxu baserriaren ondoko puntura plastiko horiek garraiatzea eskatzen da».



Barbara Deunaren eguna ospatuz

ALTZON » Barbara Deunaren eguna ospatu zuten Altzonen herenegun, hilaren 4an. Herriko Santa Barbara ermitan, urteroko ohiturekin jarraituz, herriko eta inguruko hainbat haur, gazte eta heldu bildu ziren. Hauek

kanpaiak jo zituzten lehenik ondoren meza ospatzeko. Antolatzaileen esan bezala, «txokolatinak eta 2009. urteko egutegiak ere jaso zituzten Santa Barbara ermitara gerturatut zirenek». HITZA

'Ibarra Galtzakomik 2008' lehiaketako epaimahaiak irabazleak aukeratu ditu

Ibarra » Markel Galbete, Beñat Iturbe eta Javier Navarro tolosarra dira euskarazko komiki lehiaketako irabazleak.

diz, herenegun elkartu zen lanak aztertzeko asmoz.

Epaimahaia pertsonai hauek osatzen dute: Joseba Antxustegietxarte, *Galtzaundi*-ko komikilaria; Juanba Berasategi, animaziozko filmetan bizitza daramana; Asisko Urmeneta, *Argia*-ko komikilaria eta kultur eragilea; Iñaki Martiarena, *Mattin*, prentsa komikilaria; Frantzisko Jabier Etaio, prentsa komikilaria; Iñaki Epelde, Tolosako artista; Jose Luis Longaron, Tolosako artista eta Kike Amonarriz, Telebistako aurkezlea.

3 mailatako saridunak

Lehiaketara 105 lan aurkeztu ziren. Komikiak Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiatik iritsi dira epaimahaia eraman eskutara. Hauek honakoak saritu dituzte: 10 urtetik beherakoen mailan, Olaztiko (Nafarroa) Markel Galbeteri eman diote lehen saria.

11 eta 17 urte bitarteko mailan, lehen saria Beñat Iturbe iruñearrak lortu du eta bigarren saria Altzoko Pablo Azurzak.

18 urtetik gorakoetan, lehen saria Iturbe batek eraman du, Javier Navarro Arayak hain zuzen ere. Bigarren saria Hernanira joan da, Aina Aspiazuarengana. Epaimahaiari asko kostatu omen zaio saridunak erabakitzea.

Aipatu behar da, haseran bi mailatan parte hartzeko aukera eskaini zutela antolatzaileek, baina jendearen erantzun bikaina ikusirik, hiru mailatan banatu zuten lehiaketa.

Sari banaketa Ibarra

Irabazleek euren sariak abenduaren 12an jasoko dituzte Ibarra Kultur Etxean, 19:30ean. Bertan Kike Amonarriz ariko da aurkezle gisa.

Lehiaketara bidalitako hainbat komikirekin berriz erakusketak egiteko asmoa azaldu dute Galtzaundi Euskara Taldeko kideek. Berau Ibarra Kultur Etxean egingo dute, abenduaren 12tik 19ra bitartean.

hitza Denda

Lavazza Espresso Point sistema liderra da Europan; sistema horrekin, munduko kafetegirik onenetako kafea bezalakoxea hartuko duzu.



Espresso Point kapaia maila orokorren munduko onenetako espresso iturria jetojetoa hartu ahal izango duzu, nahiz duzuean.

Honela gure sargi le mota prestatu ditzakezu, baina kafetegiak, bakoitza, cappuccino, latte macchiato eta kalitate oneko makulak beste sistemekin baino aukera gehiago ematen ditu.

LAVAZZA
ESPRESSO POINT

Coffee Break Kit
20 kontsumizio
Opari

Prezio berezia
HITZAREN irakurleentzat:

135 €

Instalazioa eta bidaltzea, dohainik *

Eskaera epea:
abenduaren 14a arte

Eskaerak egiteko:
943-30 43 45

Bidaltzea gusturik gabe

hitza

aspepelota.com **PILOTA PARTIDUAK**

Abenduak 6 • Larunbata
17:00

Capellan - Galarza VI
Chafee - Rai

BENGOETXEA VI - BELOKI
TITIN III - ZUBIETA

Galarza V - Merino
Diaz - Iza

Tolosako Beotibar pilotalekuan

Erremonte partidak dira aurtengo Kirol Astearen berrikuntza nagusia

Zizurkil » Hilaren 9tik 14ra arte izango da; Hil berria den halterofilia taldeko Jon Tecedorri omenaldia egingo diote hilaren 13an.

INIGO TERRADILLOS

Kirolari loturiko astea izango da datorrena Zizurkilen. Mendia, eskalada, halterofilia, harri-jasotzea eta krosa izango dira eta aurren, estreinakoz erremonte partidak ere bai, goi mailako erremontistekin.

Mendiarekin hasiko da Kirol Astea datorren asteartean, hain zuzen ere, Felix Baltistan Fundazioaren *Elkartasunean Mendia Bide* argazki erakusketarekin. Argazki erakusketaz gain, euren proiektuaren berri emango dute ostiralean. Egun horretan Zizurkilgo kirolari onenei omenaldia egingo die Udalak, diploma bana emanez, eta Urkamendi elkartearen afaria egingez. Ostegunean, eskaladaren txanda izango da, Lazkaoko Josune Bereziartu eskalatzailearekin, eta *Bide berriak. Ilusio berriak* ikus-entzunezkoarekin.

Jon Tecedor gogoan

Istripuz hil berria den Zizurkilgo Halterofilia taldeko Jon Tecedorri omenaldi txikia egin nahi izan diote Kirol Astearen. Datorren larunbatean izango da, 12 orduz kirolean ekimenaren baitan. Bertan, halterofilia taldeko kideek hartuko dute parte, eta harria jasotzen Telleria anak marka hobetzen saiatuko dira, Irigoienekin batera.

Kirol Astearekin amaitzeko erremonte partidak antolatu dituzte lehenengo aldiz. Ikusteko berezia izango dela azaldu zuten herenegun Zeberio eta Aizpurua erremontistek, «frontoi txikian izango baita, eta hori ez da oso ohiko izaten».



Xanti Aizpurua, Patxi Zeberio, Batis Kortajarena eta Marian Lazkano, herenegun, Kirol Astearen aurkezpenean. I. T.

» EGITARAUA

Argazki erakusketa

■ Abenduaren 9, asteartea.

Felix Baltistan Fundazioaren argazki erakusketaren inaugurazioa, 19:00etan Atxulondo kultur etxean. Abenduaren 14ra arte.

Josune Bereziartu

■ **Abenduak 11, osteguna.** Bide berriak. Ilusio berriak ikus-entzunezko eskainiko du, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

Zizurkilgo kirolariei omenaldia

■ **Abenduak 12, ostirala.** Felix Baltistan Fundazioko ordezkariak euren proiektuaren inguruko hitzaldia emango dute, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

Ondoren, Zizurkilgo kirolariei omenaldia egingo zaie.

12 orduz kirolean Zizurkilen

■ **Abenduak 13, larunbata.** Haurrentzat ginkana eta bizikletekin (kaskoa eta bizikleta norberak eman behar ditu) jokoak, Otañoko frontoian 16:00etatik 18:00etara.

Ondoren, askaria eta opariak.

18:00etan Jon Tecedorri omenaldia Intxaur frontoian: Euskal Herriko Halterofilia taldea; Aimar Irigoien eta Telleria anak harri-jasotzaileak; eta Tecedorren omenez, altxaldia taldeko pultsulari eta pultsulari ohi guztiak. Ondoren afaria, Asteasuko Iturri-Ondo jate-txean (izen-ematea, 25 euro: Aurrera eta Egari tabernetan eta udaletxean). 22:30ean, Zizurkilgo XII. Gau Krosa. (izen-ematea: www.herrikrossa.com-en doan, eta egunean bertan, 21:30etik aurrera, 5 euro). Helduek (1992 eta aurretik jaiok) 7,5 km; gazteek (1993-1996 artean jaiok) 2,5 km; eta haurrek (1996tik aurrera jaiok) km 1 (850m kontrolatuak eta 150m era librean).

Erremonte partidak

■ **Abenduak 14, igandea.** Intxaur frontoian, 12:00etan. Lehenengo partida: Etxabe II-Zubizarreta / Ibarzabal-Baleztena. Bigarrena: Zeberio II-Aizpurua II / Uterga-San Migel.

» KIROLARI OMENDUAK

■ Maitane Aburuza (Gipuzkoako Pala txapelduna 2007-2008).

■ Nerea Amilibia (mendi maratoietan txapelduna).

■ Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola (mendi lasterketak).

■ Halterofilia: Jon Sasiain (Espainianko Txapelketan 3.); Ekaitz Kortajarena (Espainian 2.); Teddy Martinez (Espainian 2.); Iker Hernandez (Espainian txapeldun).

■ Tamara Lozano (Euskadiko txapelduna 3.000 metro pistan).

■ Ander Altuna (3. pista txirrindularitzan Espainiako txapelketan).

■ Andoni Usandizaga (Taldekako txirrindularitza).

■ Imanol Arruti (Gipuzkoako Trinkete txapelduna. Euskadikoan 2.).

■ Joxean Alberdi (Krosean lehenengo 5en artean, Euskadikoan).

Gabonsariak hartzeko aukera hilaren 9tik aurrera, Harizpe elkartearen

Tolosa » Gabonetako loteria-txartelak eskuratzeko aukera dagoela oraindik ere adierazi dute elkartearen kideek.

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatutako elkartetik azaldu dutenez gabonsariak hasiko dira banatzen kideen artean. Datorren asteartean, hilaren 9an hasiko dira banatzen, eta hilaren 10ean, 11n, 12an, 15ean, 16an, 17an, 18an eta 19an izango da aukera elkartearen areto nagusitik pasatzeko. 10:30etik 12:30era bitarte pasa beharko dutela bazkideek adierazi dute, eta bazkide txartela erakutsi beharko dute gabonsaria hartu ahal izateko.

Gabonetako loteria

Bestalde, Harizpe elkartetik jakinarazi dutenez, Gabonetako loteria-txartel gutxi geratzen zaizkie saltzeko, «beraz, eskuratu nahi dituztenek azkar ibili beharko dute».

Udazkeneko jokoak

Ohiko moduan Harizpeko bazkideen artean Udazkeneko jokoak egin dituzte aurren ere. Ondoren goak izan dira lehenengo postua eskuratu dutenak: puntxoan Sarobe eta Armendariz; tutean Urange eta Goenaga; lau erregetako musean Urange eta Goenaga; zortzi erregetako musean Zubeldia anak; dominoan Veiga eta Sandoval; eta tokan Jose Manuel Ortiz izan zen irabazlea.

MIKEL LABOAREN OMENEZ

Abenduaren 7an berriarekin DOAN



Jose Luis Zumetak Mikel Laboari egindako erretratua; egileak edizio honetarako utzia.



euskaraz
bai

13!

laguntzailea
hitza

Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00

Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzeko:
Durangoko Azokako Berria eta EHE-ko standetan
Bilboko Elkar megadendetan
Arabako Euskoaldu Kutsako bulegoetan

KONTSEILUA



Aimar Irigoien Amezketa plaza, Albitzuri Haundi harriarekin. Eskuinean Baliarraingo Kultur Elejiraren baitako babarrun eta gaztain-jatea. I. URRUTIA

Amezketako eta Baliarraingo kultur ekitaldien emaitzekin «pozik»

Kultura » Aurtengo ekitaldi berriek arrakasta izan dute, esaterako, Baliarraingo mahai inguruak, eta Harri Festak Amezketa.

NEREA URBIZU

Amezketako Kultur Hamabostaldien balantzea egin du jadanik bertako Kultur Batzordeak. Aho batez emaitzarekin «oso gustura» daude emaitzordeko kideak, aurtengoarekin «pozik».

Kultur Hamabostaldiko lehen ekitaldia herritarren arteko solasaldia izan zen: euskarari buruz aritu ziren eta jendeak proposamenak eta ideiak ere eman zituen honen inguruan. Herrian, euskara hobe erabiltzeko eta ikasteko taldeko bat osatu da bertatik. Xatur Zabala kultur zinegotziak «aurki klaseekin hasiko direla» adierazi du. «Herrian euskara guztiz men-

peratzen ez duen jendea badago, beste batzuk gutxi dakite, eta hauetako batzuk eman dute izena». Etekin handia, beraz, atera diote solasaldi honi.

Aurten Harri Festa arrakastatsua ere izan da Amezketa. Bertan, Alti Harria, Albitzuri Haundi eta Ugarte Harria izan ziren eta Aimar Irigoien ere izan zen bere marka hobetzen. Alti Harria mendian, Aralarren zegoen harria da, baina hemendik aurrera udal txean izango da. «Oraindik ez diegu tarterik edo txoririk eman udal txean baina jendeak ikusteko moduan jarriko ditugu», Albitzuri Haundi bezala hortaz. «Datorren urtean ez dut uste berriz egingo dugunik, baina kirolarekin lotutako beste zerbait antolatuko dugu».

Musikari dagokionez, aurten O+Hatz proiektua eta Ugarten kontzertua eskaini zuen Arimaz abesbatza izan ziren eta azken honetan 100 lagun inguru elkartu zi-

ren elizan. Ondoren, sardina-jatea izan zen eta «honetan ere jende askok parte hartu zuen». Ugarten, iaiz Txintxarri abesbatza aritu zen eta aurten Beasaingo aipatutako abesbatza. «Datorren urtean ere, abesbatzaren bat ere gonbidatu nahi genuke, ekitaldi hori finkatu, alegia».

Antzerkia ere antolatu zuten, baina bertan behera gelditu zen. «Asvineneako talde bat zen etortzeko baina ezin izan zuten azken momentuan». Dena dela, Eguberriari aldera talde hau ekartzeko asmoa dute.

Datorren Kultur Hamabostaldia garai berean

Amezketako Kultur Hamabostaldia «beti San Martin egunaren inguruan ospatuko dugu eta tartean beti nahi genuke eguna». Beraz, bi astebururen artean harrapatuko dute San Martin eguna.

Herritarrek osatutako azoka ere

«arrakastatsua» izan zen. Herritarren 42 postu izan ziren produktu desberdinekin: «Bileran bi urtetik behin egiteko proposamena ere egin genuen baina azokaren ondoren, ikusi genuen urteroko egiteko gauza izan behar zela».

Baliarrainen ere, «gustura»

Baliarraingo Kultur Elejira ere bukatu egin zen eta bilera ofizialik egin ez badute ere, ekitaldiak buzteko baina ezin izan zuten azken momentuan». Dena dela, Eguberriari aldera talde hau ekartzeko asmoa dute.

Aurten arrakastatsua, agian, Herri kirolen eta herri kirolarien beharrak eta gabeziak izeneko mahai inguruak izan da. Aitziber Arteaga kultur zinegotziak «oso ondo» joan zela adierazi zuen. «Inork ez zuen horrenbeste jenderik espero eta leku faltan gelditu ginen. Egia esan, ez genuen kanpoko jendea espero, asmoa ez baitzen dimen-

tsio handietara iristeko ekitaldia, baina oso gustura gelditu zen jendea. Afaltzeko orduan ere oso giro ona izan zen». Gonbidatuen artean Iñaki Azurmendi faltatu zen. Beraz, honekin bete-betea asmatu dute.

Honen harira, kirola zer den galdera ere atera zen solasaldian eta baliarraindarrek frontenis herrikoia antolatzea pentsatu dute:

Amezketan Asvinenea antzerki taldeak kale egin zuen eta Eguberrietan eramango dute berriz

Herri kirolez aritu ondoren, Baliarraingo frontenis txapelketa herrikoia egingo dute

«Gure artean izango litzateke, eta gizonak eta emakumeak eraturitako bikoteekin. Honela, kirola egingo dugu eta elkartzeko aitzakia izango da». Azken finean, gozatzeko antolatuko dute txapelketa hau.

Joan den azaroaren 9an Ibiur aldera joan ziren ibilaldia egitera eta 40 lagunek hartu zuten parte. «Oso polita izan zen». Ondoren Arkaitz elkarteak antolatutako babarrun-jatea izan zen eta hura ere «oso ondo egon zen».

Josune Lazkanok lehen sorospenei buruzko hitzaldia eman zuen eta «jende gutxi joan bazen ere, oso interesgarria izan zen: izan ere, oso praktikoa izan da jendearentzat». Lazkanori proposamena egin zitzaion hitzaldi hau emateko eta «bere erara prestatu du, oso erraz eta jendearentzat praktikoa eta erabilgarria».

Jubilatuen Eguna finkoa den ekitaldia da Baliarrainen, Kultur Elejiraren baitan. Larratiz Agirre Udaleko gizarte langileak hainbat argibide eman zizkien jubilatuiei. «Hau ere interesgarria izan zen joan zirentzat; dauzkaten aukerak, laguntza eta abar azaldu zizkien. Egia esan, gutxi behar dute jubilatuak pozik egoteko». Bi oparitxo ere jaso zituzten, bata Kutxak emandakoa, eta bestea Udalak emandako lauburuarekin eta egun hartako datarekin egindako giltzatak bat.

Haur eta gurasoentzako talo tailerra ere izan zen: «Lehendik ere taloak badakigu egiten, baina elkartzeko modu bat izan zen».

Hilberriak

BENITA LIZASO LARRARTE

(Joxe Zabalaren alarguna)

Atzo hil zen, 90 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goiabego-

Seme-alabak: Iñaki eta Anttoni Pildain; Luis eta Malen Alkorta; Joxe eta Kristina Aranguren; eta Fernando. Bilobak: Unai eta Egoitz, Ainhoa eta Iñaki. Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizue eta arren etorri zaitzela GAUR, arratsaldeko 18:30ean, Azeptiko Soresuko San Sebastian parrokia elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



AZPETIA
2008ko
abenduarien 6a

Oharra: Hilbela, Azeptiko Tanatorioan.

MARI CRUZ PEÑAGARIKANO OLAIZOLA

(Joaquin Etxabe Peñaren alarguna)

Atzo hil zen, 93 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goiabego-

Haren seme-alabak: Milagros (I) eta Secundino, Jose Antonio eta Rosario, Josefina eta Juan, M. Angeles eta Basilio, Joan Mari eta Izaskun, Miguel eta Dori, Patxi eta Emi; bilobak, birlobak, ezkon anai-arrebak, eta gainerako ahaideak, haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizue eta arren etorri zaitzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko 17:30ean, Zarauzko Andra Mari Zeruratzea-Santa Maria La Real parrokia elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbela: Hilbela, Araba 46, 4-8. Oharra: Hilbela, Zarauzko Bedeinkapen egoitza gaur, 14:00ak arte. Gorpuz Laguntza familia arisan izango da Zarauzko Herrian.



ZARAUZ
2008ko
abenduarien 6a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

«Berotzeko dantza egiteak lagundu egin zigun, nonbait»

Pilota » Gomazko paletako jokalaririk onenak dira Maider Mendizabal eta Nagore Arozena; Kubako Munduko Txapelketan erakutsi zuten.

REBEKA CALVO

Kubatik etorri berri topatu dugu Maider Mendizabal pilotari aneotarra, hango «karibeko erritmoa» atzean utzi behar izan du bat-batean eta egunerokotasunera itzuli, entrenamenduetara, alegia. Nagore Arozena lizartzarra, aldid, lehenengo itzuli zen Kubatik, Munduko Txapelketa bukatu bezain pronto, baina hau ere lanez lepo topatu dugu Irurako trinketea; «dantza, ikasketak, entrenamenduak...».

Kuban izan berri den Munduko Kopako Gomazko Paleta Txapelketan lortu dute garaipena Su-Berriko pilotariek. Habanara, hala eta guztiz ere, ez ziren bakarrik joan elkarteko Itsaso Urkizu ere han izan zen Maite Ruiz de Larramendirekin batera. Irurako Ametsa elkarteko Andoni Lizaso eta David Vinuesa ere izan ziren Kuban, xare modalitatean.

Finala: gogorra eta luzea

Kubak berezko duen «karibeko erritmo» horri jarraiki bikote frantsesaren aurkako finala «duze joan zen, oso oso luze». Hiru ordu baino gehiagoko partidu «gogorra» izan zen, baina ez pentsa hiru orduetan pilotan aritu zirenik, bestelako arazoak izan ziren nagusi.

Mendizabalek eta Arozenak umorearekin gogoratzen dute partidua, hala ere: «Lehenengo argindar zutoina erori eta inguru guztian argi gabe geratu ginen, orduan elektrizitate gunera deitu behar zutela esan ziguten eta klaro, gu beldurtuta! hango erritmoa ezagututa... Hasieran ordu eta erdian konponduko zutela esan ziguten, baina ez genekien horrela izango zen ala ez eta, beraz, ez genekien noiz hasi beroketa lanekin...», gogoratu du Mendizabalek. Lehen atsedendaldi behartuak mesede egin zion lizartzarri: «Niri mesede egin zidan, oso urduri nengoen eta horrekin lasaitu egin nintzen». Garaipenaren gakoak, hala ere, beste nonbaiten aurkitu zuten bikoteak. «Aurreko batean ere partida guztiak atzeatuta zihazten, eta han, aldagela moduko batean, hasi ginen beroketa lanean, baina leku askorik ere ez zegoenez dantza hasi ginen. Nagore dantzaria ere bada, eta badago niri asko gustatzen zaidan pieza bat eta

hantxe hasi ginen dantzan. Partidu hori irabazi egin genuen eta hurrengo baterako formula hori berri ere erabili ahal genuela pentsatu genuen. Dantza egiteak lagundu egin zigun, nonbait, eta finalean ere berdina egin genuen», argitu du Mendizabalek.

Aipatu moduan finalean ere dantza egin zuten lehen atsedendaldian zehar, argindar mozketek ez ziren irtenbide gehiegi utzi, baina berotu ostean bigarren geldiuena iritsi zen: «Lehenengo atsedendaldi hori eta gero kostata baina berotu ginen berriz ere. 5-2 gindoazela, hala ere, argia joan zen berriz. Horretan 20 minutu edo eman genituen geldia. Berriz ere hasterakoan, martxa hartzen hasi ginen, eta halako batean zerbait goitik behera erortzen zela ikusi nuen. Fokoa lehertu zen eta kristal guztiak lurre-ra erori ziren!», dio lizartzako pilotariak algaraka. Mendizabal, aurrean zegoela, ez zuen zer gertatu zen ikusi eta sekulako sustoa hartu zuen gainera. «Hori jasotzeko ere denbora pila bat behar izan zuten. Hirugarren arazo hori konponduta lortu genuen aurrera egitea, baina ordurako oso nekatuta geunden, nik hankak oso kargatuta nituen...», azaldu du Arozenak.

Trinkete txarra

Zailtasunak zailtasun lortu zuten garaipena, nahiz eta trinketea ere «txarra» izan. «Pilota ez zen ikusten, pareta kristalekoa da eta atzean leihoak ditu eta argia sartzen zen, pilota ikustezin eginaz. Atzelariek gehiago ikusteko aukera zuten, baina aurrean geundenak ikusi ere ez genuen egiten. Itsaso eta biok entrenamenduetan ez genuen pilota ikusten», esan du aneotarrak.

Munduko Txapelketan parte hartu duten gainontzeko taldeen inguruko hitz egiteko ere eskatu genien pilotariek eta, batez ere, gutxi entrenatzen dutela esan digute: «Mexikarrak eta kubatarrek teknikoki oso onak dira, batez ere mexikarrak frontenisetik datozelako eta trinketeko antzeko pilota batekin jokatzeko dutelako, handiagoa eta kristoren saltoak ematen dituenak. Ondorioz, oso teknika ona dute, baina oso gutxi entrenatzen dute. Piloteoari pixka bat eutsiz



Maidar Mendizabal eta Nagore Arozena Kuban eskuratutako urrezko domina soinean dutela. R.CALVO

gero beraiek huts egiten dute», dio Mendizabalek. «Baina nahastu ere egiten zaituzte! —bota du Arozenak— Ez dute gu bezala jokatzeko dena oker ateratzen dute eta zure lekutik mugiarazten zaituzte». «Mexikarren kontra Itsasok eta Maitek jokatu zuten eta Maitei ere horrek nahastu egin zion, horren arraro jolasten zuten Maitek ez zekiela non jarri ere!», gaineratu du Mendizabalek. «Aurkaririk gogorrenak iparraldekoak izaten dira beti. Trinketea hasi ziren hasieratik, ez gu bezala. Gu frontoian hasi ginen», esan du.

10 Mundial eta «alfertuta»

Nagore Arozenarentzat hau izan da Munduko Txapelketa baten parte hartu duen lehen aldia, baina Maider Mendizabalerentzat hamargarrena izan da Kubakoa. «Oso sentazio arraroarekin jokatu nuen nik. Ez dut hori inoiz ere sentitu eta hamar bat Mundialetan izandakoa naiz. Erdi alfertuta nengoen. Ligaxkan bai nengoela aurreri, batez ere ondo jokatu nahi nuelako. Batez ere, Nagorengatik, finalean egotea nahi nuen», azaldu du Mendizabalek.

Izan ere, Mendizabalek beti egin izan du apustu Arozenaren alde, nahiz eta aurreko Munduko Txapelketan, Txilen 2006an izan zenean, ez zioten parte hartzen utzi. «Beti esan izan didate atzean jokatzeko txiki egia naizela, baina niez naiz sekula aurrelaria izan eta ez nintzen eroso egoten. Nere egoskereria guztierakin azken bi urte eman ditut korrika eta orain azkenean lortu dut atzean jokatzela, nahiz eta indar handirik ez dudana eta txikia izan», dio Arozenak. «Nagore teknikoki oso ona da —azpimarratu du harro-harro Mendizabalek— berak ez du esango, baina ona da. Nere ustez entrenadorea oker egon da, zeren fisikoa landu egin daiteke, Nagorek teknika du, eta hori garrantzitsua da. 2006an beste neska bat eraman zuten Txilera, baina fuertez josten zuten, besterik ez, teknikoki ez zuten horren ona eta ondorioz, ez zuten ezer kontrolatzen pilota. Nagoreri pilota bat arraro xamar bota ez gero ere pala eskuz aldatu eta



Mendizabal eta Arozena Urkizu eta Ruiz de Larramendirekin podiumean. HITZA

erantzuteko ahalmena du. Hori ez du edozeinek egiten».

Su-Berri elkarteak

Bi pilotari gazteak harro daude Kuban egindako lanarekin, baina euren garaipena, batez ere, pilota-zalatasuna emakumezkoen artean zabaltzeko baliatu nahi dute. Horregatik, sortu berri dute Su-Berri elkarteak. Oraingoz bederatzitaik eman dute izena, bederatzitaik emakume pilotari federatuk hain justu, eta paleta bultzatu nahi dute esku-pilotaz gain. Trinketearen inguruan hauxe esan digute: «Kanpoan jokatu nahi duten neskek frontenisaren dira. Trinketea ez da bultzatzen. Gu hemen ari gara, lehen denak frontoian ari-

zuten ginen, baina orain bultzatzen dugu. Ni Mundialetan hasi nintzenetik bultzatzen dugu. Orain Gipuzkoako Txapelketa bimotoetara egiten dugu; frontoian eta trinketea. Emakume Pilotari egitasmoa ere bitan egiten dugu. Horrela denok dugu aukera biak ikasteko, behintzat aukera izan behar dugu», dio Mendizabalek. Oraingoz «ekintza puntualak» besterik ez ditu antolatuko elkarrekin, «berandu da eta ezer antolatzen hasteko», baina euren asmoa «datorren urtean dena martxan jartzea» dela esan dute pilotariek.

Bien bitartean, entrenatzen ari tuko direla diote, pilotazalatasuna zabaltzeko eredu ematea ezin bestekoa baitute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



11°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tososaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tososaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Villabona.** *Beltzikina* antzerki saioa haurrentzat, Gurean, 17:00etan. Sarrera, 3 euro.

Azoka

■ **Tolosa.** III. Txuletaren Festa Zerkausian hilaren 8ra arte. Gaur eta bihar bazkaria eta afaria, eta etzi bazkaria. Erreserbak (40 euro) 943 697413 zenbakian edo tour@tososaldea.net helbidean.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Titirijai Txotxongiloen jaialdiko erakusketa, *Errusiarako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian. Errusiako Obrastsov, Voronezh eta Ekaterinburgokoak konpainietako txotxongiloak daude.

Deialdiak

■ **Tolosa.** 27. Shanti Trofeoan izen-ematea Shanti Kirolak dendan: infantilek (1995/96), alebnek (1997/98) eta benjaminiek (1999/2000) har dezakete parte.

■ **Tolosa.** Kontseiluak, hilaren 13an, BECen antolatuta duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiren egoitzan, 11 euroren truke (bazkideek, 8 euro).

■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria hilaren 13an, Maite Amonariz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea 699 5517 65 zenbakian.

■ **Zizurkil.** Itsasmendikoi Frasierok lorezaintzako proiektuak diseinatu, egin eta aurkezteko ikasta-



HITZA Durangoko erakusleihoan

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA • Atzo ireki zituen atak 43. Durangoko disko eta liburuen Azokak, eta astelehenera arte izango da zabalik, bertan, azken berrikuntzak eskuratzeko aukera izango delarik. HITZA ere izango da bertan, erakusmahai baitu, Barrenkaleko

6. zenbakian. Hain zuzen ere, atzo egin zuten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta Galtzaundik argitaratu berri duten *1936ko Gerrako Oroitzapenak* lanaren aurkezpena. Besteak beste, HITZA guztiek kaleratu duten *Hitzalean* liburua ere eskuratu ahaliko da. HITZA

roa antolatuta du. Lorezain, lorezaintzako teknikari eta lorezaintzako heziketa zikloetako ikasleentzat eta lorezaintzako oinarriko pres-takuntza dutenentzat.

Musika

■ **Anoeta.** Bort eta Irazi taldeen kontzertua, Gaztetxean, 23:30ean. Sarrera doan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Golazen* filma, 11:00etan, Leidorren. Doan, gonbidapenak leihatilan, agortu arte.

■ **Villabona.** *Quemar despues de leer*, 19:30ean eta 22:30ean, Gurea zinematan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturriz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Iruztzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:
5 liburu
80€

10 liburu
140 €

Salmenta puntuak:
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan



1936ko Gerrako Oroitzapenak

• TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

